

# **Ikastola, lan kolektiboa, andereñoen memorian**

(The collective work of the ikastolas or Basque-speaking schools through the memoirs of their teachers)

ETXEBERRIA SAGASTUME, Feli<sup>1</sup>; ARREGI GOENAGA, Frantziska<sup>2</sup>

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fak. Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia  
1 feli.etxeberria@ehu.es; 2 f.arregi@ehu.es

AUZMENDI ALDASORO, Nekane  
Eusko Ikaskuntza, Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia  
bizkibi@gmail.com

---

Euskal Herriko Hezkuntza sistema ulergaitza litzateke Ikastolaren ibilbidea ulertu eta eza-gutu gabe, gure gizartearen parte bizia baita Ikastolaren sortze prozesua eta haren garapena. Hemen ikusiko dugu 60. hamarkadan ikastolak bere proiektua zabaltzeari ekin ziola, andereño, guraso, euskaltzale eta herriko beste zenbait indarren arteko elkarlanaren emaitza izan zela. Ikastolaren zabaltze eta hedatzea hirurogeigarren hamarkadan zehar gertatu zen, aurretik Elbira Zipitriaren inguruan urte zailetan hasitako proiektuari jarraipena emanez. Eraikuntza hartan parte hartu zuten andereñoen memoria kolektiboaz baliatu gara, garai hartako ikastolaren mugimendua nola sortu, zabaldu eta sustraitu zen jakiteko.

Giltza-Hitzak: Ikastola. Euskara. Hezkuntza. Bilakaera. Elkarlana. Andereño. Prestakuntza.

El sistema educativo del País Vasco resultaría incomprendible sin comprender y conocer la trayectoria de la Ikastola, ya que el proceso de creación y desarrollo de la misma es una parte viva de nuestra sociedad. Aquí veremos que la ikastola emprendió su difusión en la década de los 60, y que fue fruto del trabajo conjunto entre andereños, padres, euskaltzales y otras fuerzas populares. La apertura y extensión de la ikastola tuvo lugar en la década de los sesenta, dando continuación al proyecto emprendido en torno a Elbira Zipitria en los años difíciles. Hemos utilizado la memoria colectiva de las andereños que tomaron parte en aquella construcción, a fin de conocer cómo surgió, se extendió y enraizó el movimiento de las ikastolas de aquel tiempo.

Palabras Clave: Ikastola. Euskara. Educación. Evolución. Trabajo colectivo. Andereño. Preparación.

Il est impossible de comprendre le système éducatif d'Euskal Herria sans connaître le parcours des ikastolas, car la naissance et le développement du mouvement des ikastolas est partie prenante de la société basque. On verra comment, au cours des années 60, les ikastolas ont démarré, grâce au travail collectif des institutrices et instituteurs, parents d'élèves, bascophiles et autres courants populaires. La création et l'expansion des ikastolas date des années soixante, période à laquelle le projet né autour de Elbira Zipitria. Après des années difficiles, l'initiative connaît un développement sans précédent. Grâce au collectif à la mémoire des andereño (institutrices) pionnières ayant pris part à ce mémorable mouvement, on apprend comment le mouvement des ikastolas est né, s'est diffusé et s'est enraciné.

Mots Clés: Ikastola. Euskara. Education. Évolution. Travail collectif. Institutrices. Formation.

## 1. SARRERA

Hiritik herrietara abiatu eta zabaldu zen ikastola 60. hamarkadan Euskal Herriko hegoaldeko lurraldeetan. Gipuzkoako ikastolaren sortze eta hedatze prozesuaren bilakaeraz dugun zenbait bizipenen azalpena egitea da lan honen egitekoa. Ikastola, denbora luzean garatuz joan den erakundea da. Denbora luze hori hiru epetan ikus daiteke: lehenengoa XX. mendearen hasieratik 1936ra artekoa; bigarrena gerraostean sortu zena 1942tik 1960ra arte; eta hirugarrena 60. hamarkadako. Azkeneko epe hau da bereziki guk ezagutu duguna eta aztertuko dena. Ikastolaren sorrera lehenagokoa bada ere, 60. hamarkadan ikastolak ireki eta hedatzeko beste bide batzuk urratu ziren. Gerra ondoren ireki ziren lehenengoak andereñoen ekimenez sortu ziren. Guri dagokigun epean, 60. hamarkadan alegia, aldaketa ugari gertatu ziren eta baita molde berriak sortu ere.

Zer berezitasun izan zituen azken epe honek? Honako hauek dira aipatzekoak besteak beste: herritarren partaidetzaren sorrera, andereño berriak bilatzea eta prestatzearen premiari erantzuteko bideak aurkitzea, guraso eta andereñoen inplikazioa, elkarlana, pedagogia, e.a.

## 2. METODOLOGIAZ ZERBAIT

Aztertu nahi dugun 60. hamarkadako ikastolaren errealitatea ezagutzeak baditu bere zailtasunak, batetik, garaiko klandestinitate giroan dokumentu idatzi gutxi dugulako eta horrek asko mugatzen duelako era honetako ikerketa bat. Bestetik, dokumentu idatziaren eskasiak beste bide bat urratzera eraman gaitu, ikastola eraikitzen parte hartu zutenen memoria kolektiboaz baliatzea hain zuzen ere. Denbora asko pasa da ordu ezker eta zenbaitek utzi gaituzte, baina zorionez oraindik protagonista izan ziren hainbat andereño, guraso eta bultzagile gure artean ditugu eta lekuko zuzen dira.

Lekukoentzat ez da erraza gertakizunen berri zehatz-mehatz ematea, denborak esperientzia lausotu edo idealizatu egin baitezake, eta nostalgiak ere eragina izan. Hala ere, iraganaren ezagupena eraikitzeo memoria kolektibora jotzea ezin beste-koa da. Metodo zehatzenekin ere errealitatean gertatu zena, eta hainbat hamarkada geroago memoriaren bidez eraiki daitekeena ez dira gauza bera, baina hobeki ezagutzeko pauso handi bat ematea espero dugu, protagonisten memorian oinarritzen baigara, batez ere elkarrizketa teknikaren bidez. Ikastolaren iraganarekiko hurbilpen honek Herri honetako hezkuntzaren nondik norakoa hobeto ezagutzeko bidea eskaintzen duela uste dugu eta.

## 3. IKASTOLA EPEZ-EPE

### 3.1. XX. mendea: hasera 1936ko gerra arte

Ikastolaren sorrera, XVIII. mendean gerotik amestutako asmoa izan bada ere<sup>1</sup>, XX. mendearen hasieran gauzatzen da lehenengo aldiz, eta mende horretako lehenengo

---

1. Euskal Literaturaren historian idazleen obrei ikuspegi bat ematen bazaie, lan horien egitasmoa bi multzotan klasifika daiteke: alde batetik euskara bide bezala erabili duten idazleak, euskaldunengana errazago iristeko, hauetan erlijioa izan da gehien agertu den gaia; eta bestetik, berriz, euskararen bizi-iraupenak

hiru hamarkadetan eman zituen ikastolak bere zabalkundean lehenengo aurrerapauso handiak, zenbait hiri eta herritan estrainekez ireki zirelarik.

Esan behar da Euskal Herrian, aurretik, batez ere 3. karlistadaren ondorioz, pentsakeran aldaketa handia gertatu zela eta aldaketa horren bidetik etorri zela Sabino Aranaren aberriari buruzko ideologia. Aranarentzat herri honen izatearen ardatz nagusia hizkuntza zen. Horregatik ordura arte zeuden euskararen aldeko iritziei Aranaren ekarpenak bultzada handia eman zien, eta horrela bere jarraitzaileek ere, euskararen zabalkundearen aldeko joera hartu zuten.

Joera hauek ekimen bihurtu ziren XX. mendea hasi bezain laster eta, 1936ko gerrak suntsitu nahi izan bazituen ere, ezin izan zituen herritar askoren burutik desgertarazi. Epe honetan ematen da ikastolaren sortze eta zabaltzea.

Bilbon, lehenengo ikastola Resurrección Maria Azkueren eskutik 1896-97 aldera ireki zen mutilentzat bakarrik, eta 1899 arte iraun zuen. Geldiune horren ondoren, berriro 1903an hasi zuten, eta ondoren, beste bi ikastetxe sortu zituzten 1905ean eta 1914ean. Ikastola honetan ikasle gehienak gaztelaniadunak zirenez, euskara gai gisara ematea erabaki zuten.

Donostian, lehenengo ikastola, 1914ean Migel Muñozak eraiki zuen Koruko Andre Mariaren Ikastetxea izenarekin. Hemen haur eta lehen hezkuntza osotara euskaraz egiten zen. Ikastetxe honen arrakasta ikusirik, 1916an eraikin oso bat erosi zuen ikastetxea handiagotzeko. Ikastetxe honetan hasi zen irakasle lanean 1926an Elbira Zipitria.

XX. mendeko hirugarren hamarkadako, giro egokia zen ikastolak sortzeko: Tolosan 1921ean, Errenterian 1928an, Plazentzian, Bergaran, Iruñean eta Lizarran 1932an, Gasteizen 1933an, Elizondon 1935ean, eta Oñatin, Seguran, Iruran eta Andoainen ere ireki ziren.

Bilbon, 1932an Euskal Ikastolen Batza sortu zen Euskal Eskola sustatzeko asmoz. EAJko emakume eta Eusko Gaztediko kideek osatzen zuten eta 1936 arte iraun zuen. Elkarrekin baita, ikastolak herrikoia, sozial maila guztiei irekia, osotara euskalduna, osotara kristaua eta pedagogia-joera berriei irekia izan behar zuela aldarrikatzen zen. Egitasmo honen ezaugarri gehienak, ondorengo ikastolak ere onartu zituzten.

### **3.2. XX. mendea: gerraostea ( 1942-1960)**

Gerraosteko ikastolaren sortzailea Elbira Zipitria izan zen. Zipitria andereñoak erbesetik etorrira 1942an sortu eta garatu zuen Ikastola eredu oso garrantzizkoa izan zen, ondoren sortuko zirenak hori izan baitzuten erreferentzia. Urte batzuk geroago Maria Dolores Goyak, Donostiako Gros auzoan ireki zuen ikastola. Amale Arcelus 1948an hasi zen lehenik ikastolan haur txikiekin eta 1968tik aurrera helduekin euskara irakasten.

---

kezkaturik euskararen irakaskuntzara zuzendutako lanak egin dituzten idazleak: Manuel Larramendi, Kardaberaz, Vizenta Antonia Mogel, Agustín Pascual Iturriaga, Joannes Etcheberry eta Resurrección Maria de Azkue. Azkeneko honek hainbat material bildu, idatzi eta lehenengo ikastola ireki zuen.

Elbira Zipitria nortasun handiko emakumea zen eta biziki hezkuntza gustatzen zitzaion profesionala. Lehenengo, guraso batzuen etxean eman zion hasera bere ikastolari, gero 1946an ikasle kopurua gehituz joan zitzaion, eta bera bizi zen Fermin Calbeton Kaleko 26ra eramane zuten. Andereño Elbiraren ikastolaren berri ahoz-ahoz zabalduz joan zen, eta ondorioz ikasle kopurua handitzen. Horrela 1950ean Itziar Arzelus, magisteritza ikasketak zituena eta euskaraz ongi zekien andereñoa hartu zuen laguntzaile gisa. Arzelus andereñoa adin txikikoekin aritu zen.

Zipitria andereñoaren lehen ikastola hartan ikasle gehienak, EAJko kide eta lagunak zituen familietako seme alabak ziren. Bere helburua euskaldun jatorrez osatutako herri bat egiten laguntzea zen.

Elbira andereñoaren ikastolan eskolatzea ez zen egun osoz egiten, bi orduko saioetan baizik. Horrela hiru talde izan zitzaizkien irakasle bakoitzak, eta azkeneko urtean gaztelania ere ikasten zuten, eta ikasturtean zehar eguneko ordu erdi bat gehiago izaten zuten, ikasturtea uztailaren 30ean bukatuz. Berarekin bi orduko saioa amaitu ondoren, ikasle askok beste ekintza osagarri batzuk hartzen zituzten: frantseza, musika, dantza e.a.

Bederatzi urterekin, ikastola bukatu egiten zen eta gazteleraz irakasten zuten ikastetxe batzutarra joan behar izaten zuten. Ikastoletako lehen ikasle haiek frogak gaztelaniaz egiteko gai izaten ziren. Joaten ziren ikastetxeetan (San Bartolome, Teresianak, Marianistak, Jesuitak, e.a.) ikasle hauen prestaera oso egokitzat jotzen zuten eta aipatzekoa da ikastolatik ateratzen zirenerako bai euskaraz eta bai gaztelaniaz lortzen zuten trebetasuna.

Zipitria andereñoa irakasle aparta zela aitortu behar da, nola irakasteko metodologian (hizkuntzan, matematikan, lutelestian, erlijioan e.a.), hala euskaltasunean. Hizkuntza eta euskal kulturarekiko deigarria zen bere garbizale joera.

Berarentzat ardatza herria zen, baina herri hori ez zen nolana hiko herri bat: euskalduna eta kristaua izan behar zuten, eta bi kontzeptu horiek oso era ortodoxoan definitu eta lantzen zituen. Bere ikuspegiarekin bat ez zetorrena aurkakoa kontsideratzen zuten.

Filosofia honekin egituratzen zuten bere ikastola, eta oso zorrotza zen, bai berarekiko, bai ikasleekiko eta bai beste edonorekiko.

Elbira Zipitria andereñoaren ikastola-ereduaren lehen jarraitzaileak 60. hamarkadaren aurretik andereño hauek izan ziren:

- 1950.ean Itziar Artzelus, Donostian, bere etxean.
- 1954.ean Jone Forkada, Donostian, kale Nagusiko 2an, behean eta ondoren Kaiko San Pedro elizaren alboko etxean, lehenengo bizitzan.
- 1955.ean Karmele Esnal, Donostian, Artzai Onaren Plazan, 14an behean.
- 1957.ean Mari Karmen Mitxelena, Donostian, Kaiko San Pedro elizaren alboko etxean, lehenengo bizitzan.
- 1957.ean, Mari Carmen Lasarte, Donostian, Aingeru kaleko bere etxean.

- 1957an, Faustina Carril Alde zaharrean, haur txikiekin hasi zen eta zenbait urtez bakarrik lan egin zuen bere ikastolan, eta 1965 ezkeroz Koro Egaña bere ilobaren laguntzarekin.

Elbiraren ereduari bost urterekin hasten ziren ikastolan; hala ere, txikiagoak euskaraz hasteari egoki irizten ziolako, zenbait andereño lan horretan aritu ziren.

### 3.3. Hirurogeigarren hamarkada: Ikastolaren zabaltzea hiritik herrietara

60. hamarkada oso berezia izan zen Europan eta baita Euskal Herrian ere. Euskal Herrian pentsakera aldaketa handia gertatu zen, hau da, kontzientzia berri baten zeinuak, ordurarte ixilik gordetako pentsamenduak eta sentimenduak ateratzen hasten dira, kultura, politika, erlijioa eta langileagoaren ingurukoak, besteak beste.

Ikuspegi tradizioaletik aldenduz, modernizazio prozesu baten aurrean gaude. Prozesu horren baitan ahalbideratu zen garapen ekonomiko eta soziala batez ere, dinamika berri batean sartu zen gizarte zibila eta era guztietako mugimenduak sortzen hasi ziren. Gogoan ditugu *Ez dok Hamairu* mugimendua kantagintzan, *Gaur* taldea artean eta beste hainbat ekimen, *Euskararen batasuna* lekuko. Gizartean gertatzen ari zen mugimendu honek izan zuen eraginik ikastolaren hedatze eta herrietara zabaltze prozesuan ere.

Ikastola herrietara zabaltzearen arrazoen artean eskola egokituagoaren beharra izan zen, bai hizkuntzaren eta bai pedagogiaren aldetik. Hain zokoraturik zegoen hizkuntza, euskara, eta askoren ustez familiaz kanpo baliorik ez zuena eta ikasketak egiteko oztopo zena, bat-batean hiriko ikastoletan eskolatze bide eta errealitate bihurtu zen.

Indarrean zegoen eskolaren esperientzia ez zen batere baikorra guneeuskaletako haurrentzat, baina ez dugu pentsatu behar arazo bakarra hizkuntza zenik, hau handia izanik ere. Ikastolak, euskaraz izateaz gain, eredu pedagogiko egokiago bat eskaini nahi zuen. Horrela herrietako zenbait guraso eta zenbait jende euskararen etorkizunaz ikastolak egin zezakeenaz ohartu ziren eta baita haur euskaldunak euskaraz eskolatzearen garrantziaz ere.

Ondorioz, herri askotan egindako galdera hau izan zen: zer egin ikastola bat marxtan jartzeko? Andereñoa behar zen, lekua eta ikasleak ere bai. Ikastola herrietara zabaltzen hasteak egokitze batzuk eskatzen zituen, hala nola goiz eta arratsaldeko saioak egitea, ikasle kopuru handiagoko taldeak osatzea, normalizazio bideak urratzea eta ixilpeko ikastola txiki haiek handiago eta agerikoak egitea. Hamarkada honetan praktikak egin eta ikastolan hasi ziren andereñoak hauek ditugu:

#### Elbira Zipitriarekin:

- 1960.ean Kontxita Beitia Pasaian.
- 1961.ean Arantxa Arrazola Donostian.
- 1962.ean Maritxu Mariezkurrena Hernanin.
- 1963.ean Maria Isabel Aldasoro Lazkaon<sup>2</sup>.

---

2. Andereño hau Elbirarekin praktikak egin ondoren, txikiekin Lazkaon lanean aritu zen eta ondoren Joannes Etcheberry, andereñoen erresidentziatik egin zituen Magisteritza Ikasketak.

- 1963.ean Puri Mariezkurrena Hernanin. Ondoren Izaskun Busto eta Koro Aldaondo, Donostian; Arantxa Mendizabal Lasarten eta Begoña Goya Hernanin.

#### **Karmeles Esnalekin:**

- 1962.ean Itziar Ajuria Elgoibarren.
- 1963.ean Mari Paz Artolazabal Andoainen.
- 1963.ean Arantxa Idiazabal Erreterian.

#### **1964.ean Joannes Etcheberry andereñoen erresidentzia:**

- Egoitza honetan lehenengo urtean zortzi ikasle izan ziren; hauetatik hiruk, magisteritza eta ondorengo oposaketak irabazita izan arren, ikastolarako bidea hartzea erabaki zuten eta praktikak eginez ikastolarako prestatzea.
- 1964.ean Mari Karmen Mitxelenaren ikastolan Feli Etxeberriak eta Nekane Iturbek egin zituzten praktikak eta hauek Lazkaora eta Elgoibarrera joan ziren.
- 1964.ean Nekane Auzmendik Kontxita Beitiarekin egin zituen praktikak eta Pasaian hasi zen lanean. 1965 ezkererako, Joannes Etcheberry Andereñoen Erresidentziatik pasatako andereñoek ere, lanean hasi bezain laster, beste andereñoak batzuk prestatzeko ardura hartu behar izan zuten.

## **4. JOANNES ETCEBERRY ANDEREÑOEN ERRESIDENTZIA**

Ikastola ez zen euskararekin bakarrik identifikatzen, baita pedagogia berri batekin ere. Beraz, ikastola bat irekitzeko ez zen nahikoa euskara jakin eta erabiltzea; euskara jakiteaz gain, euskal kulturaz jabetzea beharrezkoa zen. Magisteritza eskoletatik ateratzen zirenek beren formazioan zehar alderdi hau jorratzen ez zuten, eta, ikastolan lan egiteko, ikastolan nola irakatsi eta ikasten zen ere ezagutu behar zenez, prestakuntza zen premia nagusia, andereñoen prestakuntza alegia. Hasiera hasieratik eman zitzaion garrantzi handia andereñoen formazioari.

Aipatu Elbira Zipitriak eragin eta bultzatu zuen lehenengoz urtebeteko praktikak ikasgelan egitearen baldintza, nahiz eta andereñoek maistratarako ikasketak bukatuak eduki eta maistra tituludunak izan. Ez bait zituen ongi prestatuak ikusten, ez euskaraz behar adina alfabetatuak, ez euskal kulturaz jantziak eta ez irakaskuntza metodologiako berrikuntzetan trebatuak ere.

Prestakuntza premiari lotzen zitzaion andereño multzo handiago baten formazio planaren beharra, ikastolen ugaritzeari erantzun ahal izateko. 1964ean Donostian sortu zen Joannes Etcheberry Andereñoen Erresidentzia ikastolarako andereñoak bilatu eta prestatzeko. Joannes Etcheberry Andereñoen Erresidentzia sortzea talde baten lana izan zen. Talde honetako partaideak, Karlos Santamaria, Joxe Migel Zumalabe, Eugenio Agirretxe, Iñazintza Fernandorena, Joxe Murua eta Jose Maria Lasarte izan ziren; ondoren, beste batzuen artean, aipatzekoa da Jesus Mari Iriondo eta Andoni Esparzaren laguntza.

Talde honek elkarlanean burutu eta sortu zuen andereñoen prestakuntzarako antolakuntza. Hauen buruan zegoen ikastolarako prestatu beharra derrigorrezkoa zela. Berauen ustez, ikastolan lan egiteko, lehenbizi euskaraz trebeak izatea zen beharrezkoa, horregatik ardura berezia eman zitzaion Joannes Etcheberry An-

dereñoen Erresidentzian euskararen erabilpenari. Honekin batera, euskal kulturaz jabetzea zen puntu ezin utzizkoa, eta baita garaikide ziren pentsamendu korronteak ezagutzea ere. Bertako formazioaren arduraduna Pakita Arregi izan zen.

Joannes Etcheberryk andereñoak bilatu eta prestatzearekin ikastolaren zabal-kundeari erritmo berria ezarri zion. Aipatutako erresidentzian, hiru egoera diferentetako andereñoak elkartzen ziren. Lehenik Magisteritza ikasketak zituztenak, Ikastolako praktikak egiten; bigarrenik txikiekin lan egiteko prestatzen ari ziren andereñoak titulogabeak, ikastolan lan egin nahi zuten tituludunak oso urri zirenez, hauek ere praktikak egiten; eta hirugarrenik magisteritza ikasten ari zirenak, karrera ikasten ari ziren bitartean ikastolarako prestakuntza ere denbora berean egin nahi zutenak. Hiru taldeek ikasten zituzten ikastolarako beharrezkoak jotzen ziren gaiak: Euskara, Euskal Literatura, Euskal Herriaren Historia, Euskal Kultura, garaiko pentsamendu korronteak, eta baita Pedagogi eta Psikologia ere.

Praktika-jardunak lanean ari ziren andereñoengana joanez egiten ziren, ikasgelan gertatu eta egiten zena behatu, jaso eta ausnartu beharra zegoen, praktikak egiteak bide hori ematen zuen. Ez zegoen aspertzeko tarterik ikastolan, bertako giro berezi eta irakasteko modu diferentek ikasgelan murgiltzera bultzatzen baitzuten. Hala ere ikastolen ugaritzeak eta honekin batera andereño gehiago formatu beharrak arazo franko sortu bazuten ere, praktikak egiteari ez zitzaion erabateko uko egin.

## **5. IKASTOLAREN ZABALTZEAREN HAMARKADA OPAROA (1960-70)**

Hamarkada honetan sortu zen ikastolaren zabalkunderako mugimendu zabala, eta mugimendu honen eraginez ordurarte hirietan bakarrik ezagutzen zen ikastola herrietara zabaltzen hasi zen.

Hamarkada aberatsa izan zen, ikastolak gure herrian izan zuen zabalkunderik handiena eman zen. Ugaritze horren ondorioz, hamarkada horren bukaeran, 1969ko Ekainaren 7an hain zuzen ere, Ikastolak Parrokia Eskola bihurtu ziren, eta berehala, 1969ko Azaroaren 9an, Federazioa sortu zen. Beraz, hamarkada bukatu baino lehen Ikastolak pauso handiak eman zituen, gutxi izatetik antolakuntza egituratua izatera iritsi arte.

Idatzi honetan, ikastolek aipatu 60ko hamarkadan egin zuten zabaltze eta antolaketaz arituko gara. Ikastola garai honetan zabaldu, indartu, antolatu baitzen, besteak beste, andereñoak prestatu, irakaskuntza eta hezkuntza eztabaidatu, gurasoak antolatu eta lana koordinatu zelako. Orduan hasitako andereñoen formazioari, ondorengo urteetan eman zitzaion segida eta bilakaera garrantzizkoak izan ziren.

Ikastolak zabaltzearen gogoia herrietako talde euskaldunen hezkuntza proiektu bihurtu zen, baina ez zen banakako herri ekintza soilak izan. Lan hau aurrera eramateko kondizio ezin utzizkoak bete behar ziren: euskaraz irakasteaz gain Euskal Hezkuntza bideratzeko konpromisoa zegoen jokuan, honek pedagogia eremuan zituen oinarriko betebeharrak abiapuntu harturik.

Euskara eta euskal kultura zituen ardatz Ikastolak baina hezkuntzaren funtzioa ez zen horien transmisioa egitea bakarrik. Ikasleek beren bizi girotik abiatuta euskal gizartearen izatea ulertu eta ikasi egin behar zuten gizarte zabalago baten ezauga-

rrietara heltzeko ikaskuntza prozesuan zehar. Euskaraz egiten zen ikaskuntza osoa eta gazteleraz gazteleraren ikaskuntza, beti ere gure testuingurua kontuan harturik.

Gaur egun Curriculuma deritzonaren zentzua bazuen irakasteko eredu hark. Andereñoek proposatzen zuten irakats-programa taldeka landu eta bailaraka aztertzen zen. Lan honetan kontuan hartzen ziren legearen eskaerak eta adin bakoitzak markatzen zuen ibilbidearen amaieran gainditu beharreko jakintza maila.

Bestalde garbi zegoen euskaraz eta euskal kulturaz hezteak, transmisio prozesuaz gain, egoera berrietara egokitzea eta berrikuntzari aurre egitea eskatzen zuela. Honegatik oinarritzko baloreak maiz agertzen ziren hezkuntza eztabaidetan andereño, guraso eta batzarkideen artean. Alegia, nola egin haur euskaldun kritiko, responsable, eta demokratikoak?

Elkarrekin bizitzen ikastea, hau da, elkarrenganako errespetua eta tolerantzia bultzatzea, gelako eta ikastetxeko harreman giroan ongi ikusia zen.

Garaiko egoera hartan bistan zegoen talde eragile baten zeregina, ikastola bat eraiki nahi bazen: herri eta bailaren artean sortzen joan ziren lan-sareetan parte hartzea, eta, etsipenean ez erortzeko eta bide berriak urratzeko, talde-lanak ematen zuen babesaz baliatzea.

Hala ere, galdera askoren inguruan egiten zen hausnarketa franko. Euskara irakatsi eta ikasiko bada, nahikoa ote da ikastolaren lana? Zer gehiago egin dezake ikastolak euskara indartzeko? Zer eskatu behar zaio Familiari, eta zer egin gune euskaldunak bultzatzeko eta mantentzeko? Nola eragin euskaldunen alfabetatzea? Nola bideratu ikasle erdaldunen euskalduntzea? Zein zen bitarteko gisa erabiltzen ziren liburu, fitxa, eta beste materialen erabilera?

Ikastolaren proiektua zabala zen eta zabaltzen saiatu ziren guraso, andereño, juntakide, bazkide eta beste elkarlanean arituz. Ikastolak, garai honetan, ideologia desberdinetako kideak bere barnean zituen eta beharrezkoa izan zen dinamika eta estrategia berriak erabiltzea proiektuarekiko konpromisoa elkarlanean aurrera eramateko.

## **6. ERA BERRIKO IKASTOLA ETA ELKARLANA**

### **6.1. Egoera berrira egokitzea**

Ikastola herrietara zabaldu nahi zen, baina 60. hamarkadako egoera ez zen andereño Elbira hasi zenekoa bezalakoa. Elbirak hasieratik lortu zuen gurasoen konfidantza eta 40. eta 50. hamarkadetan bakardade gordinean sortu eta iraunarazi zion ikastolari. 60. hamarkadan oraindik klandestinitatean egonik ere, zenbait jendek, ikastolaren premiaz jabeturik, beren laguntza eskaini zion ikastolari egoera berrietara egokitzeko. Ordukoak dira ikastolaren historian oinarritzkoak izan diren zenbait aldaketa.

#### **6.1.1. Ikastola akademia-ordutegitik eskola-ordu normaletara pasatzea**

Ikastolaren helburu nagusia haurrak euskaraz eskolatzeko egitura sortzea zen. Elbira andereñoaren eguneko bi orduko saioen esperientzia oso baikorra gertatu zen. Ikastola klandestinoaren zenez, akademiaren ordutegira, eguneko bi orduko alegia, ego-



kitu beharra izan zuen segurtasun neurri bezala. Ikastola herrietara hedatzen hasi zenean, ezin bestekoa gertatu zen ohiko eskola-orduak ezartzea, hau da, goiz eta arratsalde. Andereño Karmele izan zen Donostian ordutegi berriarekin hasi zen lehen Elbirarekin praktikak egindakoen artean, ikastola zabaltzeko ezinbestekoa baitzen neurri hori familien beharrei erreparatuz gero.

### **6.1.2. Ikastola, ahal zen neurrian, herriko haur guztiei irekia izatea**

Bistan da erabaki honek, tokian tokiko egoeraren arabera, haur erdaldunen sarrera onartu eta erregulatu egin behar izan zuela. Nahiz eta ikastola sorreratik haur euskaldunentzat izan, gu aztertzen ari garen hamarkadan, geroz eta gehiago ziren beren seme alabentzat ikastola nahi zuten gurasoak, berauek euskararik jakin gabe ere. Horrela, familia eta bizigune soziolingüistiko erdaldunetik zetozen ikasleak ugarituz joan ziren. Fenomeno honen ondorioz, kezka eta premia berriak sortu ziren ikastoletan. Hala nola, ikasle talde gehiago eta sailkatuagoak, irakasle eta ikasgela gehiagoren beharra. Eta honi guztiari lotuta, baldintza berrien inguruko hausnarketa egitea eta material berriak sortu beharra.

## **6.2. Talde ezberdinen arteko elkar ekintza**

### **6.2.1. Normalkuntza bidean baina legezatu gabe**

1968an Bilbon ireki zen Resurreccion Maria de Azkue Ikastola salbu, beste guztiak 69an Parrokia Eskola bihurtzearen atea ireki zen arte, isilpekoak ziren. Beraz ikasleek ez zuten eskolatzeko agirik. Kopurua handitzen zihoanez, egoera geroz eta larriagoa zen. Egoera honek, guraso eta irakasleengan segurantzaren eza eragiten zuen eta elkartasunak, berriz, babesa ematen zuen. Gogoratu oraindik diktaturapean bizi gine-la<sup>3</sup>. Horregatik elkarlanak egoera honen aurrean segurantzaren eza eta babesa sentiarazten ziren bai guraso eta baita andereñoen ere.

### **6.2.2 Elkarlanean garatzen ziren ekintzak**

Ikastola zabaltzeak berarekin zeraman lana handia bezain konplexua zen. Batetik toki bilatu, egokitu, konpondu, garbitu eta mantendu behar zen. Gurasoek eta herriko euskaltzaleek eramaten zituzten aurrera lan hauek. Bestetik, andereñoak aurkitu eta neurri batean oinarritzeko prestakuntza ahalbideratzea bereziki ikastolako batzordekoen lana izaten zen. Egin behar horiek dirua suposatzen zuten, ekonomiarena zen kezka nagusienetakoa bat.

### **6.2.3 Elkarlanaren beste alde bat, andereñoak prestatzearena izan zen**

Joannes Etcheberryn egin zen lana oso garrantzitsua izan zen. Donostiako Erresidentzia aintzindari izan zen andereñoen formaziorako eta erreferente bihurtu zen Ikastolaren bilakaera ulertzeko. Aldi berean, herriz-herriz ikastolak sortzeari ekin zitzaion eta andereño prestatuen behar gorria sortu zen. Egoera horrek eraginda urte osoko

---

3. Debekatuta zegoen talde bat edozein gauza tratatzeko biltzea, horregatik bilera horiek leku estrategikotan egiten ziren, parroki-etxeetan, elizaren aretoan. Donostiako Aurrera jatetxeko (orduan Restarante Urbieta) behe solairuak ere hainbat talderi babesa eman zion.

prestakuntza laburtu egin zen kasu askotan eta formaziorako beste bide batzuk bilatu, Gohierriko kasua esate baterako.

Andereñoen formazioa ikastolaren eraikuntzari uztartua zegoenez, Gohierriko bailarak hartu zuen bertako andereñoen formazio planaren sostengu ekonomikoa eta andereñoen lana zen formazio planaren antolaketa, Feli Etxeberria zelarik bertako arduraduna. Andereñoek bailarako ikastoletan egiten zituzten praktikak, eta gau-eskola modura antolatzen ziren formaziorako ekimenak.

Ekimenen antolaketa plan baten barruan egiten zen, plan orokorraren zutabeak euskara, euskal kultura, Euskal Herriaren historia, psikologia, pedagogia eta irakasteko metodologia izanik. Esan behar da modu interaktiboan eta lan taldetan lantzen zirela ikasgai hauek. Bilgune atsegina eta orduko kezka eta erantzun bideak elkarrekin tratatu eta ezdabaidatzeko gune oso egokia gertatu zen.

#### **6.2.4 Elkarlanean herritik bailarara eta bailaretatik talde bateragilea osatzera**

Ikastolak zabaltzen ari ziren neurrian, antolaketa beharrezkoa zen ikastola bakoitzaren esparruan. Baina bakarka aritu ordez hasieratik ekin behar izan zitzaion ikastolen arteko sarea eraikitzeari, herritik bailarara, eta Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bailaretako ordezkariak Talde Bateragilea osatzen zuten.

Ikastolak euskarazko irakaskuntza garatzeko, era askotako oztupoak zituen. Batzuk barrukoak, adibidez, ekonomiari eta andereñoak aurkitze eta prestatzeari zegozkionak. Beste batzuk egoera politiko eta legeetatik zetozkionak. Beharrezkoa zen tokian tokiko egoerak ezagutu eta informazioa jasoz arazoei konponbidea bilatzen saiatzea. Garaiko politikaren ondorioz arazo larriak gure egoera klandestinoarekin oso lotuak zeuden. Esate baterako, inspektoreen bisitak nola saihestu, ikasleak nola prestatu haren galderak erantzuteko; hitz batean, nola jokatu aurreikusitako behar izaten zen.

#### **6.2.5 Ekonomia saileko beharrak**

Maiz, beharrak larriak izaten ziren eta arazo honen aurrean diru iturriak bilatzen go gor saiatu beharra zegoen soluzioak aurkituko baziren. Besteak beste, 60. hamarkadaren bigarren erdi aldera, Talde Bateragile honen kezka nagusia andereñoen eskasia zen. Ordurako, Joannes Etcheberry andereñoaren Erresidentzia sortua zen eta harreman estua zuen Talde Bateragilearekin. Eta honek helarazten zion zenbait ikastolak jartzen zuten dirua Andereñoen Erresidentziari.

Esandako guztiak garbi uzten du elkarlanak emaitza franko eman zuela. Andereño, guraso eta beste zenbait indarren arteko auzolana izan zela esan liteke.

Eginkizun hauek, gehienak bolondres gisa egiten ziren; ikastolarekin lotura zuen jendea bakarrik ez zen izaten: batzuetan iturginek, arotzek, eta beste zenbait profesionalek, zuzenean ikastolaren inguruan ibili ez arren, dohainik lan egiten zuten. Lanaz gain, jendeak dirua, materialak eta altzariak ere ematen zituen laguntza modura.

#### **6.2.6 Lehen euskal udalekuak**

Andereñoen Erresidentziaren lehenengo urtean ikastoletara praktikak egitera joaten ziren andereñoek, ikastolaz kanpo euskara erabiltzeko aukerak eskaintzearen premia

ikusituz, ikasle askok, hirikoek batik bat, euskaraz hitz egiteko aukera gutxi baitzuten. Egoera honen aurrean ikastoletako ikasleei aisialdia ere euskaraz eskaintzeko asmoa hartu zuten eta asmoa errealitate bihurtu zen uda hartan bertan, 1965ean, Nekane Auzmendiren eskutik lehen euskal udalekuak antolatuz.

Andereñoen Erresidentziako batzordeko jendea, bertan prestatzen ari zirenetako zenbait andereñogai, apaizen batzuk, ikastoletako batzordeetako ordezkariak eta euskararen normalkuntzan laguntzeko prest zegoen era askotako jendea bildu zen egitasmo honen inguruan.

Tokia hautatzerakoan bazen, ikastolak klandestinoak izanik, zuhurrena Euskal Herriatik kanpo egitea izango zela pentsatzen zuenik, baita Errioxako lurretan etxebila ibili zenik ere, baina azkenean, Euskal Herrian bertan, Arabako Lautadan, Barriako Zistertar Monastegiaren hospederia izandakoan eman zitzaizen hasiera euskal udalekuei.

Lehen euskal udalekuak ere Ikastolak bezala auzolan zabalari esker jarri ahal izan ziren martxan. Era guztietako laguntzak izan ziren: tokia bilatzeko eta txukuntzeko, sukaldari eta begirale izateko, jakiak, garbigaiak etab. prezio onean lortzeko, botikak dohainik izateko, etab.

Begiraleek aurretik *Boy scout*eko hezitzaileekin bildu ziren, haien esperientzia ezagutu eta ekintza batzuk prestatzeko. Haien filosofiaren oinarritzko zenbait puntu bat zetozen ikastolarenarekin gero aipatuko den bezala. Nolanahi ere, ikastolaren pedagogiaren kutsua ezarri zitzaion udalekuen planteamenduari.

Uda hartan, bada, hiru asteko bi egonaldi antolatu ziren. Bata sei-zazpi urte bitarteko umeekin eta bestea zortzi-bederatzi urtekoekin. Gehienak Gipuzkoako ikastoletako haurrak ziren, baina beste herrialdeetako batzuk ere izan ziren, baita euskal errefuxiatu batzuren seme-alabak ere.

Programaren oinarrian elkarbizitza sustatzea zegoen; euskara eta euskal kulturaren ezagutza aberastea. Honetarako ikastoletan praktikak egiterakoan ikasitako joku, ipuin, abesti, olerki eta abar baliagarriak gertatu ziren. Neskato eta mutikoei ardura emateko aukera handiak eskeintzen zituen udalekuak eta egin zitzaizkien zenbait lan beren eskuetan uzten ziren. Ingurua ezagutu eta errespetatuz gozatzearen esperientzia izatea, inguruko herrietako jendearekin harreman onak izatea. Puntu honetan arreta berezia jarri genuen. Urte haietan Arabako herri txiki hartan inolako baimenik gabe eta denak euskaraz aritzeak sor zezakeen kontrako erreakziorik ez zen izan. Eta oso harreman ona eta sana lortu zen bai ingurune fisikoarekin eta bai sozialarekin ere.

Nahiko ongi ateratu zen lehenengo urteko esperientzia eta hurrengo udatan baldintzak eta baliabideak hobetuz aurrera egin zen. Udaleku hauek aintzindari izan ziren oso urte gutxiren buruan finkatuko zen Euskal Udalekuen sare zabalarentzat.

## 7. ANDEREÑOEN IBILBIDE PROFESIONALA ELKARLANEAN

Ikastolaren proiektua hasieratik izan zen berritzaile. Beti izan zuen helburu eskolatik baztertuta zegoen hizkuntza, euskara, eskola eremuan sartzea. Aztertzen ari garen

garaian, klandestinitate gorrian, andereñoentzat ikastolan lan egiteak bi aurpegi zituen. Alde batetik erakargarria zen, eta bestetik arriskutsua.

Lehenengo pausoak bereziki zailak izan ziren arrazoi askorengatik: galerazita zegoen hizkuntzari eskolan sarrera emateak suposatzen zuenarengatik, legeztazerik ere ez zegoelako, eta normalizatu gabeko hizkuntza batean irakaskuntza oinarritzeak zailtasunak zituelako.

Aipatzen ari garen garaiko ikastolen erakargarritasuna ez zetorren euskara erabiltzetik bakarrik, baizik eta pedagogia berritzailean irakasteagatik. Ordurarte ezagutzen zen eskola ereduarekin konparatuz gero, andereñoek ikastola askoz ere aurrerakoiagoa eta gure herrira egokituagoa iruditu zitzaion. Izan ere ezagutzen zen eskola herrian kokatua egoteak, ez zuen esan nahi gure premietara eta kulturara egokitzen zenik. Hau da, nahiko arrotza zen eskola hura. Euskal Herrira egokitutako eskola on bat egiteko asmoarekin eta bidenabar gizartearen aldaketari eragin nahian abiatu ziren andereñoak, guraso eta guraso ez ziren askorekin elkarlanean ikastolaren erakuntzan.

Andereñoek hezkuntzan baloreak lantzeari garrantzi handia ematen zioten. Adibidez: askatasun giroari, ikaskuntza sorkuntza gisa planteatzeari, ikaslea aurkikuntza bidean jartzeari, bakoitzaren asmakizun eta deskubrimenduak baloratzeari, hitz batean, ikaslearen interesak aintzakotzat hartzeari.

Ezaugarri hauek orduko Magisteritza Eskolak transmititzen ez zituenez, garrantzitsua zen formazio bide berriak urratzea, hauen artean praktikak egitea zelarik beharrezkoena. Praktikak egin arren, lanean hasteak formazioarekin jarraitzea eskatzen zuen, eta horretarako zenbait ikastaro antolatzen ziren gai desberdinak lantzeko: euskal kultura, euskal alfabetatzea, pedagogia, etab.

Hauen antolamendua ikasturte barruan egiten zen, eta, giroak eta egoerak eskatzen zuenean, puntualki saio bereziak ere antolatzen ziren udako ikastaldietan. Andereñoen lan egiteko era eraikitzailea zen eta praktika hori hausnarketa bide gertatzen zen; askotan oso jarrera kritikoa erabiliz erantzuten zitzaion eguneroko lanean sortzen ziren galdera eta arazoei. Ikastolaren sorreratik jaso zenari urteen buruan andereñoek beren ekarpenak eransten zizkioten.

Pedagogia berritzailearen ondotik zenbait eskola berriren korranteak eta lan prozedurak ikasi eta hezkuntzaren praktikan martxan jartzen ere saiatzeko ziren andereñoak, adibidez Decrolyren ikuspegi pedagogikoan, Freineten eskola esperientzian eta Barcelonako Rosa Sensaten ikasitakoaz baliaturik. Bide honek profesional maila hazi eta elkarlanean aritzeko kultura sortu zuen.

Elkarlanean eta harreman sendoan aritzeak laguntza ematen zien andereñoek eta segurtasuna beren ekimenerako. Hezkuntza eta pedagogiaren mailako galdera asko partekatzen zituzten, adibidez noiz eta nola egin irakurketa-idazketa, askatasuna eta hezkuntzaren arteko mugak non jarri, elkarrekintza eta disziplinaren neurriak nola ezarri, haur erdaldunak nola bideratu euskaraz ikasketak egin zitzaizaten, euskal kontzientzia nola eragin ikastolaren bidez eta abar luze bat.

Esan behar da sare sozial handia sortu zela andereñoen artean, baita ikastolen artean ere eta hau elkarrekintzaren bidez lortu zen. Ondorioz, andereñoek bazuten

taldearekiko identifikazioa, eta horrela egituratuz joan zen andereño izatearen kontzientzia kolektiboa.

Ikastolak harremana errazten zuen irakasle, ikasle eta gurasoen arteko gertutasuna bultzatuz, eta ikasleari segurtasuna eta bere pertsonalitatea indartzeko aukera eman nahian. Ez zitzaion ahazten andereñoari familiaren eragina haur heziketan, bai gurasoekiko harremanak sustatuz, bai gurasoekin banaka edo/eta taldeka bilzteari garrantzia emanez.

Batzordeko gurasoek ere, andereñoen bidez informazioa izaten zuten, eta zenbait erabaki elkarrekin hartzen zituzten. Batzuetan ikasleen gurasoen artean, nahiz euskara onartu, euskaraz eskolatzearen emaitzei buruzko zalantzak agertzen ziren. Horrelakoetan batzordekoek andereñoekin batera informatzen zituzten ikasleen gurasoak ordu arteko ikastolen lorpenak azalduz.

68an Hezkuntza Ministeritzak eskolatzegaraian zeuden ikasle guztiak eskolatzekartila izatera behartzen zituen legea atera zuen. Ikastolak klandestinoak izanik, lege honi erantzuteko ez zuten modurik. Eta legeztatu ziren arte, ikastolako ikasleek beste ikastetxe batzuetakoak balira bezala lortzen zuten eskolatzekartila. Beraz, ezinbestekoa zen legeztatzeko bideak aurkitzea. Azkenik Konkordatuaz baliatuz, elizaren babesean legalizatuz joan ziren gehienak.

Prozesu honek erakusten diguna hau da: egoera zailetan elkarlanean aritzeak duen indarra eta lan taldeak sentitzen duen motibazioa aurrera egiteko. Hala ere, zailtasunak zailtasun, harrigarria benetan ikastolak urte haietan izan zuen zabalkundea.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- ALTED, A. *Entre el pasado y el presente. Historia y memoria*, Madrid: Editorial UNED, 1996.
- CASTELLS, L. (Ed.). "La Historia de la vida cotidiana". En: *Ayer*, nº 19, 1995.
- BERIAIN, J. *La identidad colectiva: vascos y navarros*. Pamplona: Editorial Universidad Pública de Navarra.
- BOURDIEU, P. *Cosas Dichas*. Barcelona: Editorial Gedisa, S.A., 1987.
- FRASER, R. "La historia oral como historia desde abajo". En: *Ayer*, 1993. Barcelona: Marcial Pons, 1993.
- MARINAS, J.M.; SANTAMARINAS, C. (Ed.). *La historia oral: métodos y experiencias*. Madrid: Editorial Debate, 1993.
- PEREZ GARZON, J.S. *La gestión de la memoria*. Barcelona: Editorial Crítica, 2000.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I. *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbao: Editorial Universidad de Deusto, 1996.